

Euskal AEko esportazioek % 13,5 egin dute behera 2023ko maiatzean

Urteko lehenengo bost hiletako metatuan, esportazioek % 6,6ko igoera izan dute, eta inportazioek % 3,0koa

Eustatek dituen datuen arabera, Euskal AEko ondasunen esportazioek (2.827,3 milioi euro) % 13,5eko jaitsiera izan zuten 2023ko maiatzean, aurreko urteko hil berarekin alderatuta. Bilakaera hori izan dute bai produktu energetikoek (- % 53,3) bai produktu ez-energetikoek (- % 10,3).

Inportazio-fluxuak (2.471,7 milioi) ere % 5,1 egin du behera, eta beherakada hori inportazio energetikoetan (- % 7,4) eta ez-energetikoetan (- % 4,5) ikusi da. Hala ere, pisu-tonatan, urtetik urterako aldakuntzak positiboak izan dira bai inportazio energetikoetan (% 14,6) bai ez-energetikoetan (% 22,1).

Hil honetan, 355,6 milioi euroko merkataritza-saldo positiboa izan da, eta % 114,4ko estaldura-tasa; hori guztia, balio nominaletan neurtuta.

2023ko lehenengo bost hiletako balantzean ikusten da esportazioek % 6,6 egin dutela gora, eta igoera hori ikusi da bai produktu ez-energetikoetan (% 9,5) bai produktu energetikoetan (% 28,8). Inportazioei dagokienez, balantzea % 3,0ko igoerarekin itxi da; produktu energetikoetan igoera % 3,7koa izan da, eta ez-energetikoetan % 2,7koa.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Maiatza 2023

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Maiatza			Maiatza		
	2022	2023	Gehikuntza (%)	2022	2023	Gehikuntza (%)
EUSKAL AE						
HILABETEA, GUZTIRA	3.267.609	2.827.276	-13,5	2.605.374	2.471.712	-5,1
ENERGIAZKO GAIAK	244.249	113.999	-53,3	553.188	512.422	-7,4
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	3.023.360	2.713.277	-10,3	2.052.185	1.959.290	-4,5
URTEKO METATUA	13.319.635	14.202.605	6,6	11.497.995	11.837.692	3,0
ENERGIAZKO GAIAK	998.201	710.769	-28,8	2.785.537	2.889.391	3,7
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	12.321.433	13.491.836	9,5	8.712.458	8.948.302	2,7
ARABA / ÁLAVA						
HILABETEA, GUZTIRA	960.840	935.750	-2,6	625.034	546.689	-12,5
URTEKO METATUA	3.905.829	4.566.673	16,9	2.502.091	2.640.521	5,5
BIZKAIA						
HILABETEA, GUZTIRA	1.386.563	1.044.366	-24,7	1.420.757	1.428.008	0,5
URTEKO METATUA	5.434.555	5.336.673	-1,8	6.621.464	6.907.208	4,3
GIPUZKOA						
HILABETEA, GUZTIRA	920.207	847.160	-7,9	559.583	497.014	-11,2
URTEKO METATUA	3.979.251	4.299.259	8,0	2.374.440	2.289.962	-3,6

Data 2023ko Uztailaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

2023ko maiatzean esportazioek hiru lurraldeetan egin dute behera, baina intentsitate ezberdinez: Bizkaian esportazioen jaitsiera % 24,7koa izan da, eta Gipuzkoan % 7,9koa; Araban, berriz, % 2,6koa baino ez.

Hil honetan, Arabatik igorritako ondasunen erdiak baino gehiago *Garraio-materialak* izan dira (% 58,5), nahiz eta urtetik urterako % 5,3ko jaitsiera izan duten (532,5 milioi esportatuak). Era berean, jaitsi egin dira beste arantzel-sekzio batzuk ere; besteak beste, *Metalak eta horien manufakturak* (- % 9,7), *Elikagaiak* (- % 8,9) edo *Produktu kimikoak* (- % 32,1).

Bizkaian esportazioak jaitsi dira *Produktu mineral eta energetikoetan* (- % 51,7), aurreko urteko hil berean baino 128,5 milioi gutxiagorekin, eta *Metalak eta horien manufakturetan* (- % 28,1) eta *Produktu kimikoetan* (- % 43). Aitzitik, gora egin dute *Koipe eta olioak* (% 22,9) eta *Animalien erreinuko jatorriko produktuen* (% 26,9) salmentek.

Gipuzkoan behera egin dute sekzio hauek: *Material, makina eta aparatu elektrikoak*, % 10,3; *Metalak eta horien manufakturak*, % 18,7; *Papera eta horren manufakturak*, % 16,8, eta *Produktu kimikoak*, % 41,8. Bestalde, *Garraio-materialak* sekzioak, % 47,3ko igoera izan ondoren, 152,9 milioi euroko esportazioak egin ditu 2023ko maiatzean.

Jatorri-helmugako herrialdeak, 2023ko maiatza

2023ko maiatzean, bost herrialdek (Alemania, Frantzia, Estatu Batuak, Erresuma Batua eta Belgika) osatu zuten Euskal AERen bezero nagusien taldea, esportatutako guztizkoaren % 51,7 hartu baitzuten (1.462,9 milioi). Horietako hiru EB27koak dira, eta entitate horri % 63,3 dagokio.

Alemaniarra egindako **esportazioak** hil honetan 479,5 milioi eurokoak izan dira, eta, besteak beste, honako hauek nagusitu dira: *10 pertsona baino gutxiagoko turismoak* (112,8 milioi), *Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak* (96,1 milioi) eta *Ibilgailu automobilen zati eta osagarriak* (37,9 milioi); guztira, 422 produktu-mota izan dira.

Frantziara 673 produktu-mota bideratu dira, guztira 418,4 milioi suposatu dituztenak, eta horien artean nabarmendu dira *Ibilgailu automobilen zati eta osagarriak* (30,5 milioi) eta *Kautxuzko pneumatiko berriak* (26,2 milioi).

Estatu Batuak daude, 210,4 milioirekin, hirugarren posizioan, eta kasu horretan esportazio gehienak egin dira *Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobiletan* (34 milioi), *Petrolioaren olio finduetan* (25 milioi) eta *Soldadurarik gabeko burdinazko edo altzairuzko hodi eta profil hutsetan* (22,3 milioi), eta, guztira, 341 produktu ezberdin izan dira.

Erresuma Batuak Euskal AEko esportazio guztien 178,3 milioi biltzen ditu; horietatik 20,2 milioi *Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilei* dagozkie, 14,8 milioi *Turboerreaktore, turbopropulsaile eta gainerako gas-turbinei*, horien *pieza eta osagaiei* eta 10,4 milioi *Kautxuzko pneumatiko berriei*.

Belgikara 176,2 milioi euroko esportazioak egin dira, eta hil honetan egin diren transakzioetan nagusitu dira *Petrolioaren olio finduak* (42,2 milioi), *Aduana-arantzelean berariaz jasota ez dauden salgaiak* (27,7 milioi) eta *Findu gabeko kobrea* (15,6 milioi).

Hil honetan, gure **inportazioen** % 55,5 EB27tik etorri dira. Herrialde aipagarrien artean, nabarmendu behar da Alemaniatik inportatu dena (364,1 milioi), batez ere *Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak* (41,8 milioi) eta *Enbolo, diesel edo erdi-diesel motorrak* (36,8 milioi). Txina ere nabarmendu behar da 196 milioirekin, eta kasu honetan *Metagailu elektrikoak eta horien zatiak* daude lehenengo lekuan 30,3 milioirekin. Frantzia hirugarren posizioan dago 176,4 milioirekin, eta horietatik 33,1 *Burdinurtuzko, burdinazko edo altzairuzko txatarrari* dagozkio. Herbehereak garrantzi handikoak izan dira inportazioetan hil honetan eta guztira 150,5 milioi merkaturatu dira, eta horien ia erdia izatera hurbildu dira *Petrolioaren olio finduak* (39,3 milioi) eta *Petrolioaren eta mineral bituminosoaren olio gordinak* (33 milioi).

Hil honetako energiaren arloko inportazioak honela banatu dira: Kazakhstan 123,7 milioi euro; Herbehereak 78,3 milioi; Mexiko 70,7; Estatu Batuak 57,5 milioi; Norvegia, 46,9 milioi; Irak 43,3 milioi, Erresuma Batua 38,5 milioi, Kuwait 31,3 milioi, Portugal 19,8 milioi eta Alemania 1,4 milioi. Gainerakoa, 512 milioi eurora iritsi arte, 22 herrialderen artean banatzen da.

Merkaturatutako produktuak, 2023ko maiatza

Xehetasunetara joz, ikusten da 2023ko maiatzean hamar **arantzel-partida** nagusiek esportazioen % 40,2 pilatu zutela, eta horien balio bateratua 1.136,2 milioi eurokoa izan zen.

Produktu-multzo horretan, honako hauek nabarmentzen dira euren garrantziagatik eta izan duten portaera negatiboagatik: *10 pertsona baino gutxiagoko turismoak* (- % 5,4ko urte arteko aldakuntza-tasa), 263,4 milioi esportatuak, aurreko urteko hil berean baino 15,1 milioi gutxiago; *Salgaien garraiorako ibilgailu automobilak* (- % 5 eta 202 milioi euro esportatuak) eta *Petrolioaren olio finduak* (- % 56,6 eta 92,1 milioi). Beste aldean, merkaturatutako eta hazkunde positiboa izandako lehenengo produktuen artean daude *Kautxuzko pneumatiko berriak*, % 9 gehiagorekin (122,3 milioi) eta *Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.*, eta horien esportazioek % 116,3 egin dute gora (40,5 milioi). Analisiaren esparrua esportazio-rankingeko lehenengo 25 posizioetara zabaltzen badugu, hazkunde-tasa aipagarriak ikusiko ditu honako partida hauetan: *Automotorrak, trenbide eta tranbia autopropulstsatueterako* (% 365,5), *Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak* (% 48,7) edo *Turboerreaktoreak, turbopropulstsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, horien zatiak eta osagarriak barne* (% 39,9). Bestalde, adierazi behar dira hainbat adarretako salmentetan izan diren beherakadak, besteak beste hauetan: *Aduana-arantzelean berariaz jasota ez dauden salgaiak*, - % 65,1; *0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xaflak eta tirak*, - % 44,6; *Burdinazko edo altzairuzko gainerako manufakturak*, - % 33,1 eta *Altzairu herdoilgaitzezko barrak eta profilak*, - % 14,6.

Euskal AEko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Maiatza 2023

	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	3.267.609	2.827.276	100,0	-13,5
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	278.447	263.353	9,3	-5,4
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	212.529	202.003	7,1	-5,0
Automobilentzako zati eta osagarriak	195.386	197.159	7,0	0,9
Kautxuzko pneumatiko berriak	112.168	122.260	4,3	9,0
Petrolioaren olio finduak	212.249	92.133	3,3	-56,6
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	67.466	68.339	2,4	1,3
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	78.079	67.122	2,4	-14,0
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	60.319	46.487	1,6	-22,9
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	18.737	40.519	1,4	116,3
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	40.828	36.797	1,3	-9,9
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	41.796	35.694	1,3	-14,6
Aduana-tarifen berariaz jasota ez dauden merkantziak	98.950	34.490	1,2	-65,1
Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturrak	48.802	32.647	1,2	-33,1
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminioko xafiak eta tirak	57.112	31.618	1,1	-44,6
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	19.587	29.119	1,0	48,7
Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatu batzuk	23.871	27.133	1,0	13,7
Turborreaktoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	18.279	25.567	0,9	39,9
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	30.682	23.041	0,8	-24,9
Ontziak eta paketatzeko aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatzeko makinak	17.823	22.842	0,8	28,2
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	22.127	22.271	0,8	0,7
Metal arruntzeko giltzarriak, sarraila, morrolo eta giltzak	24.064	21.367	0,8	-11,2
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsaletarako	4.579	21.313	0,8	365,5
Transformadore elektrikoak, bihurgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	25.837	21.117	0,7	-18,3
Xafien bidez eraikitutako barrak, profilak, tutuak eta fundicion-etako, burdinako edo altzairuko antzeko	31.415	20.746	0,7	-34,0
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak, etab.	23.600	20.587	0,7	-12,8

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Uztailaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Inportazioei dagokienez, eta arantzel-partiden kasuan, horietako garrantzitsuenak, *Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinenak* (guztizkoaren % 16) % 19,5eko beherakada izan du 2022ko hil berean baino 95,9 milioi gutxiagorekin, erostetak guztira 396,3 milioikoak izanik; aitzitik, konparazioa tonatan eginez gero, 2022ko maiatzean 687.790 tona inportatu ziren eta 2023ko hil berean 780.330 inportatu dira, hau da, % 13,5 gehiago.

Nabarmen egin dute gora *Petrolioaren olio finduen* inportazioek, eta 91 milioi inportatu dira. Igoera nabarmenak izan dituzte beste hauek ere: *Beroan ijeztutako produktu lauak, aleatu, txapatu edo estali gabeko burdin edo altzairuzkoak > 599 mm* (% 25), *Soja-babak, baita hautsiak ere* (% 17,6), *Industria kimikoko eta horrekin lotutako beste prestakin eta produktu batzuk* (% 63) eta *Elikagai edo edari industrietan erabilitako gai usaintsuen nahasketak* (% 74,7), guztiak ere gehien inportatutako partiden zerrendan daudenak.

ARABA. Esportazioak 2023ko maiatzean

Araban esportazioek % 2,6 egin dute behera. Lehenengo 10 esportazio-partidetako hiruk bakarrik izan dituzte aldaketa positiboak maiatzean. Hauek dira: *Kautxuzko pneumatiko berriak*, % 39,4 egin dute gora eta 52,6 milioi eurora iritsi dira; *Altzairu herdoilgaitza lingotetan edo bestelako forma primarioetan*, % 29 egin du gora eta 8,6 milioi eurora iritsi da; eta *Tutu eta hodi hutsak, soldadurarik gabeak, burdinazkoak edo altzairuzkoak*, eta partida honek % 6,5 egin du gora eta 56,6 milioira iritsi da. Gainerako partidek behera egin dute intentsitate ezberdinean: - % 4,9 *Salgaien garraiorako ibilgailu automobilek* (201,5 milioi), - % 23,2 *Metal arrunteko ontzietarako tapoi, tapa eta beste*

osagarri batzuek (9,2 milioi) eta - % 33 *Burdinazko edo altzairuzko beste tutu eta profil huts batzuek* (15 milioi).

Arabako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Maiatza 2023

	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	960.840	935.750	100,0	-2,6
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	276.119	258.602	27,6	-6,3
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	211.968	201.492	21,5	-4,9
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	53.176	56.647	6,1	6,5
Kautxuzko pneumatiko berriak	37.712	52.560	5,6	39,4
Automobilentzako zati eta osagarriak	55.164	46.334	5,0	-16,0
Ardoa, mahats freskoarena	19.349	16.468	1,8	-14,9
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	22.376	15.000	1,6	-33,0
Metal arruntzeko ontzietarako tapoiak, tapak eta beste osagarri batzuk	12.015	9.225	1,0	-23,2
Motorra duten edo ez duten aireontzien zatiak, tripulatuak izan edo ez, eta satelite eta ibilgailu espazialen zatiak	10.694	9.007	1,0	-15,8
Altzairu herdoilgaitza, lingotetan edo bestelako forma primarioekin	6.651	8.583	0,9	29,0

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Uztailaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

BIZKAIA. Esportazioak 2023ko maiatzean

Bizkaiko lurralde historikotik egin diren esportazioek % 24,7 egin dute behera. *Petrolioaren olio finduena* da Bizkaiko esportazio-rankineko lehenengo partida, eta % 57,2 jaitsi da eta 90,4 milioi esportatu dira. Behera nabarmen egin duen beste partida bat *Aduana-arantzelean berariaz jasota ez dauden salgaiena* izan da, hil honetan % 66,4 egin baitu behera eta 32,5 milioira mugatu da. Horrekin batera, Bizkaian beherakada nabarmena izan duen bestea *0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafila eta tirena* izan da (- % 48,9 eta 23,2 milioi). Aitzitik, gora egin dute esportazioek *Turboerreaktoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, horien piezak eta osagaiak barne* partidan (% 41, 25,5 milioi), *Galdategiko burdinazko eta altzairuzko gainerako manufaktura moldeatuak* partidan (% 23,1 eta 18,3 milioi) eta *Ibilgailu automobilen zati eta osagarrienean* (% 5,4 eta 74,9 milioi).

Bizkaiko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Maiatza 2023

	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	1.386.563	1.044.366	100,0	-24,7
Petrolioaren olio finduak	211.098	90.411	8,7	-57,2
Automobilentzako zati eta osagarriak	71.027	74.864	7,2	5,4
Kautxuzko pneumatiko berriak	73.906	68.935	6,6	-6,7
Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak	96.703	32.506	3,1	-66,4
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	35.218	27.977	2,7	-20,6
Turboerreaktoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	18.078	25.490	2,4	41,0
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	45.472	23.220	2,2	-48,9
Soja-olioa	518	20.254	1,9	3.813,5
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zultatzeko barra hutsak	24.119	19.924	1,9	-17,4
Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatu batzuk	14.906	18.347	1,8	23,1

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Uztailaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

GIPUZKOA. Esportazioak 2023ko maiatzean

Gipuzkoako esportazioak % 7,9 jaitsi dira 2023ko maiatzean, 2022ko hil berarekin alderatuta. Igoera esanguratsuak, % 100etik gorakoak, izan dira partida hauetan: *Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulstsatueterako* (% 365 eta 21,3 milioi esportatu), *Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak* (% 183,7 eta 18,5 milioi esportatuak) eta *Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.* (% 139,9 eta 34,8 milioi). Hazkunde aipagarria izan duen beste partida bat, esportazio guztietan duen garrantziagatik, *Ibilgailu automobilen zati eta osagarriena* izan da (% 19,2 eta 71,7 milioi esportatuak).

Partida nagusien artean, honako hauetan izandako beherakadak nabarmendu behar dira: *Txorrotetako artikulak, balbulak eta tutuetarako antzeko gaiak* (- % 31 eta 30,9 milioi), *Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak* (- % 15,1 eta 62,6 milioi), *Burdinazko edo altzairuzko gainerako manufakturak* (- % 18,6 eta 18,7 milioi) eta *Metal arruntez egindako giltzarapo, sarraila, morroilo eta giltzak* (- % 13,4 eta 19,7 milioi).

Gipuzkoako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Maiatza 2023

	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	920.207	847.160	100,0	-7,9
Automobilentzako zati eta osagarriak	69.195	75.961	9,0	9,8
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	73.815	62.632	7,4	-15,1
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	14.499	34.775	4,1	139,9
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	44.843	30.940	3,7	-31,0
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	13.975	26.533	3,1	89,9
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulstsatueterako	4.579	21.313	2,5	365,5
Ontziak eta paketatzeko aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatzeko makinak	16.955	21.145	2,5	24,7
Metal arruntezko giltzarapo, sarraila, morroilo eta giltzak	22.756	19.716	2,3	-13,4
Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturak	22.944	18.672	2,2	-18,6
Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	6.515	18.483	2,2	183,7


(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Uztailaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkatizaren estatistika

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera

Milioi Euro



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Argibide gehiagorako, sartu [Elkano](#) kanpo-merkataritzaren datuak kontsultatzeko aplikaziora.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62